

# Azaroak 15

## Guggenheim - Bilbo



### Jardunaldia

## “Lagunkoitasunean Jardunbide Egokiak: Europa eta Estatuko esperientziak”

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak datorren azaroaren 15-ean Bilboko Guggenheim Museoan ospatuko den “Lagunkoitasunean Jardunbide egokiak: Europa eta Estatuko esperientziak” jardunaldira gonbidatu nahi zaitu.

Jardunaldi hau "**Euskadi Lagunkoia**" ekimenaren barne antolatu da eta helburu orokorra herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren parte-hartzea sustatzean datza zahartzen diren pertsonen bizitza erraztuko duten inguruneak sortzeko lagunkoitasun mugimendu bat garatu asmoz. Gaur egun **herrien sarea euskal lurraldeko 50 herri eta hiriz osatuta dago.**

Inguruneen lagunkoitasun mugimendua 2005ean hasi zen Osasunaren Mundu Erakundeak bultzatuta “Age-Friendly Cities and Communities” izenarekin. Gaur egun 37 herrialdeko 400 hiri eta komunitatek dihardute helburu honekin lanean.

Jardunaldiak erronka honi erantzuna eman nahiean europa eta estatu mailako jardunbide egokiak ezagutzeko aukera emango du. **Helburua esperientzi berritzaile eta sortzaileak elkar trukatzean datza Euskadin lagunkoitasuna garatzeko inspirazio gisa.**

## “Lagunkoitasunean Jardunbide Egokiak: Europa eta Estatuko esperientziak” Jardunaldia

9:30-10:00 Harrera eta informazioa jasotzea

10:00-10:30 Hasiera

10:30-11:00 Inaugurazio konferentzia: Hiri-garapena, lagunkoitasuna eta zahartzaroa: erronkak eta aukerak

Dr. Tine Buffel. MICRA. University of Manchester.

11:00-12:00 Mahai-ingurua: Jardunbide egokiak European  
Moderatzailea: Mayte Sancho. Matia Fundazioko aholkularia

“Dementia Friendly” esperientzia

Baieztatzeke

Belgikako lehen Zaintzen Bankua

Sarah Dury. Faculty of Psychology and Educational Sciences. University of Vrije, Brussels.

Aurreiritziak ekiditen berrikuntza eta sormenetik

Baieztatzeke

12:00-12:30 Atsedena

12:30-13:30 Mahai-ingurua: Sareak ehuntzen

Moderatzailea: Emilio Sola. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Zuzendaria

Bherria: Herritartasun berrirako agora

Asier Gallastegi. Korapilatzen.

Denbora bankuak: lankidetzeta eta elkarrekikotasuna

Rocío Cuevas. Xarxa Bancs del Temps Associació Salut i Família-ko koordinatzailea.

Eskailera: eguneroko arazoak komunitatearen eskutik konpontzen

Rosa Jiménez. “La Escalera” proiektuko koordinatzailea.

13:30-14:00 Euskadi Lagunkoia, Jardunbide Egokien Atalaren aurkezpena eta itxiera

Elena del Barrio. Euskadi Lagunkoia proiektuko koordinatzailea. Matia Institutua.

Lide Amilibia. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordea.